

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 667/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan materia organikoa gaika biltzeko dirulaguntza lerro bat esleitzea**

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 26ko 51/2017 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan materia organikoa gaika biltzeko dirulaguntza lerro baterako oinarri arautzaileak onetsi ziren, bai eta laguntza horien 2017ko ekitaldiko deialdia ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 13ko 205/2021 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoan materia organikoa gaika biltzeko eta horren kudeaketa egiteko 2021. eta 2022. ekitaldietako dirulaguntzaren deialdiari.

Ekintza lagungarriak dira baliabide materialak erostea, sentsibilizazio kanpainak, eta erakunde eskatzaileez kanpoko aholkularitza teknikoak hondakin organikoen gaikako bilketaren ezarpena eta horren jarraipena egiteko moduari buruzko aholkularitza emateko.

Aurkezteko epea amaitu da eta hamabost (15) erakundeek aurkeztu dituzte deialdiaren xederako dirulaguntzak jasotzeko eskaerak.

Ukatu egin zen Trebiñuko Konderriko Udalak egindako dirulaguntza eskaera, ez duelako betetzen laguntza horiek arautzen dituzten oinarrien 2. artikulua, Arabako Lurralde Historikokoa ez delako.

Era berean, bi dirulaguntza eskaera ukatu ziren, alkatetzaren dekretu bat aurkeztu zelako, eskaerak aurkezteko epea amaitu ondorengoa (2021eko maiatzaren 24an):

- Arratzua-Ubarrundiako Udalak 2021eko ekainaren 7an onetsi zuen alkatetzaren dekretua.
- Iruraitz-Gaunako Udalak 2021eko ekainaren 17an onetsi zuen alkatetzaren dekretua.

Bosgarren artikuluko (Aurkeztu beharreko agiria) 2. eta 3. puntuetan azaldutakoa oinarri hartuta, nahitaezko agiria eta/edo osagarriak eskatu zaizkie hamahiru erakunderi, eta denek behar bezala erantzun dute, Dulantziko Udalak izan ezik. Hori dela eta, udal horrek dirulaguntzaren eskaeran atzera egin duela ulertuko da, oinarri arautzaileak aplikatuz eska daitekeen dokumentazioa aurkezteko eskatzen zuen ekainaren 4ko lehen errekerimenduari erantzun ez diolako.

Deialdi honetarako onetsi den zenbatekoa 169.000 eurokoa da, eta 2021ean onetsitako foru aurrekontuaren 2021eko eta 2022ko urtekorokoei egotzi behar zaie, honela banatuta:

- 2021eko urterokoa, guztira 44.000,00 euroekin.
- 2022ko urterokoa, guztira 125.000,00 euroekin.

Eskatzaile bakoitzari emango zaion dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 70 izango da.

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira, bi baldintzaren pean (oinarri arautzaileen 6. artikulua, 2. eta 3. apartatuak):

a) Kuadrilla bateko eskaera multzorako gehieneko aurrekontu zuzkidura honela aterako da: deialdian onartutako zenbatekoa, eskaera aurkeztu duen kuadrilla kopuruarekin zatituz. Beharrezkoa bada, eskaerak kuadrilla mailan hainbanatuko dira muga horretaraino. Baldintza hori ez da aplikatuko hurrengo b) apartatua aplikatzen denean.

Aipatzen den gehieneko aurrekontuko zuzkidura deialdi honek 2021eko eta 2022ko urteroko bakoitzerako onetsitako zenbatekoari aplikatuko zaio, ekitaldi bakoitzean eskaerak aurkezten dituzten kuadrilla kopuruaren arabera.

Baldintza hori aplikatuta, 2021eko deialdiko arauei jarraituz, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, kuadrilla bakoitzeko, 8.800,00 euro da (44.000,00 euro zati 5 kuadrilla eskatzaile). 2022. urteari dagokionez, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, kuadrilla bakoitzeko, 25.000,00 euro da (125.000,00 euro zati 5 kuadrilla eskatzaile).

Onartutako hamaika eskaeretatik 3 eskaera kuadrillek egin dituzte; horietako biri zuzenean aplikatzen zaie muga hori, eta Aiarako Kuadrillari, berriz, aplikatzen zaion muga diruz lagundutako zenbatekoa da, muga hori baino txikiagoa. Bestalde, Arabako Lautadako Kuadrillako 3 udalek laguntzak eskatu dituzte, eta Gorbeialdeko Kuadrillan, 5 udalek. Eskaera bat baino gehiago dituzten bi kuadrilla horien kasuan, kuadrilla bakoitzak dituen erakundeen eskaera guztietarako laguntzak, hasiera batean, ez dira 8.800,00 euro-tik gorakoak izango 2021ean, ez eta 25.000,00 euro-tik gorakoak 2022an.

b) Diruz lagundu ahal diren laguntzen zenbateko osoa txikiagoa baldin bada aurrekontuan dagoen diru zenbatekoa baino, gaindikina proportzionalki banatuko da, eskaera egin eta dirulaguntza jasotzeko eskubidea duen erakunde bakoitzak jasotako puntuazioaren arabera; ezin izango da inola ere gainditu aurrean aipatzen den diruz lagundu ahal den gehieneko portzentajea (ehuneko 70). Gaindikina banatzen bada, ez da aplikatuko kuadrilla bakoitzeko gehieneko zuzkidura, a) letran aipatutakoa.

Balorazio mahaiak aztertu ditu onartutako eskaerak, eta puntuazio bat eman die, zazpigarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera, eta baterako balorazio bat esleitu dio eskaera bakoitzari, ekintzak proposatzen dituzten urtea edozein dela ere. Hauek dira irizpideak eta banaketa:

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
Jardueraren zehaztapen teknikoak	60
Eskatutako jardueren egokitasuna, proiektuak lortu nahi dituen helburuen aldean	20
Proiektuaren koherentzia orokorra	20
<b>Guztira</b>	<b>100</b>

Eskaera berean jarduketa baterako baino gehiagotarako laguntza eska daiteke. "Jardueraren zehaztapen teknikoak" izeneko atalean, gehienez ere 60 puntu lor daitezke, ondoko taulan jasotzen den moduan. 60 puntu horiek honela banatzen dira, eskatutako jardueren arabera:

AUKERA	LAGUNTZA JASOKO DUEN JARDUERA MOTA	JARDUEREN GEHIENKO PUNTUAZIOA
1. aukera	Baliabide materialak	25,00
	Sentsibilizazio kanpainak	25,00
	Kanpoko laguntza teknikoa	10,00
2. aukera	Baliabide materialak	30,00
	Sentsibilizazio kanpainak	30,00
3. aukera	Baliabide materialak	42,85
	Kanpoko laguntza teknikoa	17,15
4. aukera	Sentsibilizazio kanpainak	42,85
	Kanpoko laguntza teknikoa	17,15
5. aukera	Baliabide materialak	60,00
6. aukera	Sentsibilizazio kanpainak	60,00
7. aukera	Kanpoko laguntza teknikoa	60,00

Emandako puntuazioen justifikazioa I. eranskinean agertzen da, eta horren emaitza taula honetan laburbiltzen da:

ESKATZAILEA	PUNTUAK	EZAUGARRI TEKNIKOAK			EGOKITASUNA	KOHERENTZIA
		BALIABIDE MATERIALAK	KANPAINAK	LAGUNTZA TEKNIKOAK		
Burgeluko Udala	92,50	22,50	22,50	10,00	20,00	17,50
Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla	90,00	20,00	20,00	10,00	20,00	20,00
Asparreneko Udala	90,00	52,50	0,00	0,00	20,00	17,50
Urkabustaizko Udala	87,85	37,85	0,00	15,00	20,00	15,00
Aguraingo Udala	87,50	57,50	0,00	0,00	15,00	15,00
Zigoitiko Udala	85,00	37,85	0,00	12,15	20,00	15,00
Aramaioko Udala	82,85	37,85	0,00	10,00	20,00	15,00
Arabako Mendialdeko Kuadrilla	82,50	15,00	22,50	10,00	20,00	15,00
Zuiaiko Udala	82,15	30,00	0,00	12,15	20,00	20,00
Aiarako Kuadrilla	80,00	17,50	20,00	7,50	20,00	15,00
Legutioko Udala	80,00	37,85	0,00	12,15	15,00	15,00

### Dirulaguntzak esleitzea 2021. urtea

Oinarri arauetan ezarritako baldintzen arabera, emandako puntuazioari erreparatuta adjudikatu dira laguntzak, kontuan izanik aurretik dirulaguntzaren gehieneko portzentajea (ehuneko 70) eta kuadrilla bakoitzeko gehieneko zuzkidura (8.800,00 euro).

Hona hemen kalkulu prozesuan identifikatu diren kasuen azalpena:

1. Kuadrilla/udal batzuei gehieneko dirulaguntza esleitu zaie (8.800,00 euro), eskatu duten diru kopuruari ehuneko 70 aplikatuta zenbateko handiagoa ateratzen delako.

Eskatzaile hauei aplikatu zaie: Guardia - Arabako Errioxako kuadrilla eta Aguraingo Udala, 2021ean eskaera aurkeztu duen Arabako Lautadako kuadrillako erakunde bakarra.

2. Eskatutako zenbatekoa dirulaguntza gisa esleitzen zaien kuadrillak.

Eskatzaile honi aplikatu zaio: Aiarako Kuadrilla.

Aiarako Kuadrillak 50.197,87 euro-ko aurrekontua aurkeztu du, eta eskaera 7.333,33 euro-koa da; hau da, txikiagoa da aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 70 baino eta kuadrillako lor lezaketen gehieneko kopurua baino. Kasu horretan, 8.800,00 eurora arteko gerakina geroago birbanatzeko gorde da.

Atal honetan eskuragarri dagoen gerakina 1.466,67 euro-koa da.

3. Beste kuadrilla batzuei ehuneko 70eko gehieneko dirulaguntza aplikatuta 8.800,00 eurotik beherako emaitza ateratzen da. Horrelakoei ehuneko 70 aplikatu zaie, eta 8.800,00 eurora arteko gerakina geroago birbanatzeko gorde da.

Arabako Mendialdeko Kuadrillari aplikatzen zaio.

a. Arabako Mendialdeko Kuadrillak 11.177,29 euroko aurrekontua aurkeztu du; 7.824,10 euro da dirulaguntzaren ehuneko 70 (kuadrilla bakoitzeko 8.800,00 euroko gehieneko zuzkidura baino gutxiago).

Atal honetan eskuragarri dagoen gerakina 975,90 euro-koa da.

4. Gorbeialdeko Kuadrillako 5 udalen eskaerretarako, esleipen irizpide hau erabili da:

a. Lortutako puntuazioan oinarrituta, udal bakoitzari ehuneko 70eko dirulaguntza esleitu zaio hurrenez hurren, harik eta kuadrilla bakoitzeko 8.800,00 euroko gehieneko zuzkidura agortu arte.

b. Lehenengo eta behin, ehuneko 70 esleitu zaie udal hauei: Urkabustaiz (2.617,23 euro), Zigoitia (1.682,98 euro), Aramaio (2.148,83 euro) eta Zuia (1.463,62 euro).

c. Esleipen horren ondoren, 8.800,00 eurotik 887,34 euro geratzen dira (8.800,00 – 2.617,23 euro – 1.682,98 euro – 2.148,83 euro – 1.463,62 euro), eta puntuazio hurrenkeraren arabera ematen zaizkio Legutioko Udalari.

d. Horrela, agortuta dago, a priori, Gorbeialdeko kuadrillarako gehieneko zuzkidura.

• Lehenengo banaketa amaituta, 6.4 artikulua aplikatuz, 2.442,57 euroko gerakina dagoela ikusirik, bidezkoa da hura birbanatzea lortutako puntuazioaren arabera eta, baldintza gisa, dirulaguntzaren ehuneko 70eko gehieneko muga bakarrik kontuan hartuta. Honela esleitzen da:

1. Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla:

- Lehenengo banaketa: 8.800,00 euro.
- Berresleitutako gerakina: 2.442,57 euro.
- Guztira: 11.242,57 euro.

ESKATZAILEA	PUNTUAK	DIRUZ LAGUN DAITEKEEN AURREKONTUA €	EMANDAKO DIRULAGUNTZA €	OHARRAK
BURGELUKO UDALA	92,50	0,00	0,00	Ez du dirulaguntza eskatu 2021ean
GUARDIA - ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA	90,00	24.200,00	11.242,57	ehuneko 40,4. Gehieneko muga kuadrillako gehi bigarren banaketan egindako gerakin esleipena
ASPARRENEKO UDALA	90,00	0,00	0,00	Ez du dirulaguntza eskatu 2021ean
URKABUSTAIZKO UDALA	87,85	3.738,90	2.617,23	ehuneko 70
AGURAINGO UDALA	87,50	58.200,24	8.800,00	Gehieneko muga kuadrillako
ZIGOITIKO UDALA	85,00	2.404,27	1.682,98	ehuneko 70
ARAMAIOKO UDALA	82,85	3.069,77	2.148,83	ehuneko 70
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA	82,50	11.177,29	7.824,10	ehuneko 70
ZUJAKO UDALA	82,15	2.090,88	1.463,62	ehuneko 70
AIARAKO KUADRILLA	80,00	50.197,87	7.333,33	Eskatutako dirulaguntza
LEGUTIOKO UDALA	80,00	7.043,41	887,34	ehuneko 12,6. Lehenengo banaketa egin ondoren kuadrillak duen gerakina esleitu zaio
<b>ZENBATEKOA, GUZTIRA</b>		<b>162.122,63</b>	<b>44.000,00</b>	

## 2022. urtea

Oinarri arauetan ezarritako baldintzen arabera, emandako puntuazioari erreparatuta adjudikatu dira laguntzak, kontuan izanik aurretik dirulaguntzaren gehieneko portzentajea (ehuneko 70) eta kuadrilla bakoitzeko gehieneko zuzkidura (25.000,00 euro).

Hona hemen kalkulu prozesuan identifikatu diren kasuen azalpena:

a. Kuadrilla batzuei gehieneko dirulaguntza esleitu zaie (25.000,00 euro), eskatu duten diru kopuruari ehuneko 70 aplikatuta zenbateko handiagoa ateratzen delako.

Eskatzaile hauei aplikatu zaie: Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla.

b. Eskatutako zenbatekoa dirulaguntza gisa esleitzen zaien kuadrillak.

Eskatzaile honi aplikatu zaio: Aiarako Kuadrilla.

Aiarako Kuadrillak 135.945,13 euro-ko aurrekontua aurkeztu du, eta eskaera 20.833,33 euro-koa da; hau da, txikiagoa da aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 70 baino eta kuadrillako lor lezaketen gehieneko kopurua baino. Kasu horretan, 25.000,00 eurora arteko gerakina geroago birbanatzeko gorde da.

Atal honetan eskuragarri dagoen gerakina 4.166,67 euro-koa da.

c. Beste kuadrilla batzuei ehuneko 70eko gehieneko dirulaguntza aplikatuta 25.000,00 eurotik beherako emaitza ateratzen da. Horrelakoei ehuneko 70 aplikatu zaie, eta 25.000,00 eurora arteko gerakina geroago birbanatzeko gorde da.

Arabako Mendialdeko Kuadrillari aplikatzen zaio.

1. Arabako Mendialdeko Kuadrillak 30.811,04 euroko aurrekontua aurkeztu du; 21.567,73 euro da dirulaguntzaren ehuneko 70 (kuadrilla bakoitzeko 25.000,00 euroko gehieneko zuzkidura baino gutxiago).

Atal honetan eskuragarri dagoen gerakina 3.432,27 euro-koa da.

d. Gorbeialdeko Kuadrillako 5 udalen eskaeretarako, esleipen irizpide hau erabili da:

1. Lortutako puntuazioan oinarrituta, udal bakoitzari ehuneko 70eko dirulaguntza esleitu zaio hurrenez hurren, harik eta kuadrilla bakoitzeko 25.000,00 euroko gehieneko zuzkidura agortu arte.

2. Lehenengo eta behin, ehuneko 70 esleitu zaie udal hauei: Urkabustaiz (6.687,07 euro) eta Zigoitia (8.249,78 euro).

3. Esleipen horren ondoren, 25.000,00 eurotik 10.063,15 euro geratzen dira (25.000,00 – 6.687,07 euro – 8.249,78 euro), eta puntuazio hurrenkeraren arabera ematen zaizkio Aramaioko Udalari.

4. Horrela, agortuta dago, a priori, Gorbeialdeko Kuadrillarako gehieneko zuzkidura.

e. Arabako Lautadako Kuadrillako 3 udalen eskaeretarako, esleipen irizpide hau erabili da:

1. Lortutako puntuazioan oinarrituta, udal bakoitzari ehuneko 70eko dirulaguntza esleitu zaio hurrenez hurren, harik eta kuadrilla bakoitzeko 25.000,00 euroko gehieneko zuzkidura agortu arte.

2. Lehenik, kuadrillako gehienekoa esleitu da, Burgeluko Udalak aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 70 baino txikiagoa (25.000 euro).

3. Horrela geratzen da, a priori, Arabako Lautadako Kuadrillarako gehieneko zuzkidura agortuta.

• Lehenengo banaketa amaituta, 6.4 artikulua aplikatuz, 7.598,94 euroko gerakina dagoela ikusirik, bidezkoa da hura birbanatzea lortutako puntuazioaren arabera eta diruz lagun daitekeen ehuneko 70eko gehieneko muga soilik kontuan hartuta baldintza gisa. Honela esleitzen da:

1. Burgeluko Udala:

- Lehenengo banaketa: 25.000 euro.
- Berresleitutako gerakina: 7.598,94 euro.
- Guztira: 32.598,94 euro.

ESKATZAILEA	PUNTUAK	DIRUZ LAGUN DAITEKEEN AURREKONTUA €	EMANDAKO DIRULAGUNTZA €	OHARRAK
BURGELUKO UDALA	92,50	58.705,00	32.598,94	ehuneko 55,53, honela: 25.000 euro, kuadrillaren udalerrien arteko lehenengo banaketan, eta 7.598,94 euro, bigarren diru esleipenean
GUARDIA - ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA	90,00	99.133,97	25.000,00	ehuneko 25,22, hau da, gehieneko muga kuadrillako
ASPARRENEKO UDALA	90,00	3.666,30	0,00	Kuadrillako gehieneko zuzkidura agortu delako
URKABUSTAIZKO UDALA	87,85	9.552,95	6.687,07	ehuneko 70
AGURAINGO UDALA	87,50	47.237,64	0,00	Kuadrillako gehieneko zuzkidura delako
ZIGOITIKO UDALA	85,00	11.785,40	8.249,78	ehuneko 70
ARAMAIOKO UDALA	82,85	16.080,90	10.063,15	ehuneko 62,58, hau da, kuadrillaren gerakina lehenengo banaketan esleitzen zaio
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA	82,50	30.811,04	21.567,73	ehuneko 70
ZUIAKO UDALA	82,15	15.990,15	0,00	Kuadrillako gehieneko zuzkidura agortu delako
AIARAKO KUADRILLA	80,00	135.945,13	20.833,33	Eskatutako dirulaguntza
LEGUTIOKO UDALA	80,00	3.402,52	0,00	Kuadrillako gehieneko zuzkidura agortu delako
<b>ZENBATEKOA, GUZTIRA</b>		<b>432.311,00</b>	<b>125.000,00</b>	

**Epeak luzatzea 2021eko jarduketetarako**

Apirilaren 13ko 205/2021 Erabakiaren arabera, 2021eko jarduketak gauzatzeko eta dagokion egiaztagiria aurkezteko epea 2021eko abenduaren 1a zen.

Hala ere, eta deialdi honetako dirulaguntzak epe laburragoan ebatzi ezin izan direnez, egokitzen jotzen da 2021eko jarduerak gauzatzeko epea 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzea proposatzea.

Era berean, proposatzen da onestea 2021eko ordainketak egiteko eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzea.

Horren arabera, lehen diputatu nagusiordea eta ekonomia garapenaren, berrikuntzaren eta demografia erronkaren saileko foru diputatuak proposatuta, Ingurumen eta Hirigintza Saileko titularraren jardunean, titularrak ez dagoelako, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/92 Foru Arauaren 40. artikulua eman-dako eskuduntzak erabiliz, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

**ERABAKITZEN DUT**

Lehenengoa. Adierazitako laguntzak ematea erakunde hauei, dagozkien ekintzak gauzatzeko:

**2021. urtea**

ESKATZAILEA	PUNTUAK	DIRUZ LAGUN DAITEKEEN AURREKONTUA €	EMANDAKO DIRULAGUNTZA €	OHARRAK
BURGELUKO UDALA	92,50	0,00	0,00	Ez du dirulaguntza eskatu 2021ean
GUARDIA - ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA	90,00	24.200,00	11.242,57	ehuneko 40,4. Gehieneko muga kuadrillako gehi bigarren banaketan egindako gerakin esleipena
ASPARRENEKO UDALA	90,00	0,00	0,00	Ez du dirulaguntza eskatu 2021ean
URKABUSTAIZKO UDALA	87,85	3.738,90	2.617,23	ehuneko 70
AGURAINGO UDALA	87,50	58.200,24	8.800,00	Gehieneko muga kuadrillako
ZIGOITIKO UDALA	85,00	2.404,27	1.682,98	ehuneko 70
ARAMAIOKO UDALA	82,85	3.069,77	2.148,83	ehuneko 70
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA	82,50	11.177,29	7.824,10	ehuneko 70
ZUIAKO UDALA	82,15	2.090,88	1.463,62	ehuneko 70
AJARAKO KUADRILLA	80,00	50.197,87	7.333,33	Eskatutako dirulaguntza
LEGUTIKO UDALA	80,00	7.043,41	887,34	ehuneko 12,6. Lehenengo banaketa egin ondoren kuadrillak duen gerakina esleitu zaio
<b>ZENBATEKOA, GUZTIRA</b>		<b>162.122,63</b>	<b>44.000,00</b>	

**2022. urtea**

ESKATZAILEA	PUNTUAK	DIRUZ LAGUN DAITEKEEN AURREKONTUA €	EMANDAKO DIRULAGUNTZA €	OHARRAK
BURGELUKO UDALA	92,50	58.705,00	32.598,94	ehuneko 55,53, honela: 25.000 euro, kuadrillaren udalerrien arteko lehenengo banaketan, eta 7.598,94 euro, bigarren diru esleipenean
GUARDIA - ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA	90,00	99.133,97	25.000,00	ehuneko 25,22, hau da, gehieneko muga kuadrillako
ASPARRENEKO UDALA	90,00	3.666,30	0,00	Kuadrillako gehieneko zuzkidura agortu delako
URKABUSTAIZKO UDALA	87,85	9.552,95	6.687,07	ehuneko 70
AGURAINGO UDALA	87,50	47.237,64	0,00	Kuadrillako gehieneko zuzkidura delako
ZIGOITIKO UDALA	85,00	11.785,40	8.249,78	ehuneko 70
ARAMAIOKO UDALA	82,85	16.080,90	10.063,15	ehuneko 62,58, hau da, kuadrillaren gerakina lehenengo banaketan esleitzen zaio
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA	82,50	30.811,04	21.567,73	ehuneko 70

ESKATZAILEA	PUNTUAK	DIRUZ LAGUN DAITEKEEN AURREKONTUA €	EMANDAKO DIRULAGUNTZA €	OHARRAK
ZUIAKO UDALA	82,15	15.990,15	0,00	Kuadrillako gehieneko zuzkidura agortu delako
AIARAKO KUADRILLA	80,00	135.945,13	20.833,33	Eskatutako dirulaguntza
LEGUTIOKO UDALA	80,00	3.402,52	0,00	Kuadrillako gehieneko zuzkidura agortu delako
<b>ZENBATEKOA, GUZTIRA</b>		<b>432.311,00</b>	<b>125.000,00</b>	

Bigarrena. Ukatzea Trebiñuko Konderriko Udalak egindako dirulaguntza eskaera, ez due-lako betetzen laguntza horiek arautzen dituzten oinarrien 2. artikulua, erakunde onuradunei buruzkoa.

Hirugarrena. Ukatzea Arratzua-Ubarrundiako eta Iruraitz-Gaunako udalek egindako dirulaguntza eskaerak, eskaerak aurkezteko epea amaitu ondorengo alkatetzaren dekretu bat aurkeztu zelako (2021-05-24):

Laugarrena. Dulantziko Udalaren dirulaguntza eskaerari uko egin zaiola ulertzen da, ez baitaio erantzun ekainaren 4ko lehen errekerimenduari, non eskatu baitzitzaien oinarri arautzaileak aplikatuz eska daitekeen dokumentazioa aurkezteko.

Bosgarrena. 2022ko ekitaldirako aurkeztu diren eskaerei aplikatzeari dagokionez: dirulaguntza ukatzea Asparreneko, Aguraingo, Zuiako eta Legutioko udalei, kuadrilla bakoitzeko ezarritako gehieneko muga eta aurrekontuko zuzkidura agortu dutelako.

Seigarrena. Dirulaguntza lerro hau arautzen duten oinarrien 9. artikuluan (Emandako dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea) ezarritakoaren arabera ordainduko dira dirulaguntzak, eta 2021-2022 deialdi honetarako berariaz onartu diren oharrekin.

Zazpigarrena. Onestea jarduketak gauzatzeko epea 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzea.

Onestea 2021eko ordainketak egiteko eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzea.

Zortzigarrena. Eskatzaile bakoitzak 2022. urterako aurreikusitako kontzeptuak 2022ko abenduaren 1a baino lehen gauzatu beharko dira.

2022ko ordainketak egiteko eskatzen den dokumentazioa 2022ko abenduaren 1erako, egun hori barne, aurkeztu behar da.

Bederatzigarrena. Ez zaie eperik handituko, ez eta 2022ko ekitaldira luzatuko ere, 2021eko ekitaldirako aurreikusita eta aurrekontuan sartuta egon arren, aurreikusitako epeetan gauzatu eta justifikatu ez diren ekintzei.

Hamargarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2021eko eta 2022ko ekitaldietarako partiden kargura ordainduko dira guztira 169.000,00 euro egiten duten dirulaguntzak, banaketa honen arabera:

– 2022ko urterokoa, guztira 44.000,00 euroekin:

- 7.123,37 euro, 60207.6500.4629001 "Dirulaguntzak, organikoa" aurrekontu partidaren kontura.

- 36.876,63 euro, 60207.6500.7629001 "Dirulaguntzak, toki erakundeentzat hondakin organikoak gaika biltzea, 2017-2030" aurrekontu partidaren kargura.

– 2022ko urterokoa, guztira 125.000,00 euroekin:

- 35.512,92 euro, 60207.6500.4629001 "Dirulaguntzak, organikoa" aurrekontu partidaren kontura.

- 89.487,08 euro, 60207.6500.7629001 "Dirulaguntzak, toki erakundeentzat hondakin organikoak gaika biltzea, 2017-2030" aurrekontu partidaren kargura.

Hamaikagarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hamabigarrena. Dekretu hau behin betikoa da administrazio bidean eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 2a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Ingurumen eta Hirigintza Sailaren jarduneko foru diputatua*

*PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO*

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko jarduneko zuzendaria*

*M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE*